

Hobe berandu inoiz ere ez baino

Urriaren 17an Ongaraiko Institutuak bere ateak zabaldu zituen Ermuko 265 neska-mutilek lehenengo aldiz ikasketa ertainak Ermuaz kanpo joan beharrik gabe burutu ahal izan dezaten. Dударik gabe 1994-95 ikasturtea oso kontutan hartzeak izango da, egia bihurtu bait da urteetan zehar irakaskuntz mailan herri honek izan duen beharrik nagusienetarikoa bat. Orain badu Ermuak institutu bat eta kasu honetan esan beharko litzateke hobe dela berandu inoiz ere ez baino.

Kostata, eta benetan kostata gainera, lortu du Ermuak bere institutua eraikita ikustea. 15 urte baino gehiago izango dira institutuaren proiektua dantzatzan dabilela, zeren jada orduan ikastolan genbiltzala jakitera eman zizkiguten ordungo institutu baten eraikuntzaren xehetasunak. Gure gelakideok izan ginen ikastolan zortzigarren mailara heltzen ginen lehenak eta pentsarazi ziguten irakaskuntz ertaina ere herrian bertan burutu ahal izango genuela.

Ez orduan ez eta ondorengo urteetan ere, ez da izan posible horrelakorik, ez bait da bertan inoiz izan OHOKo ikastetxetatik kanpo beste zeozer. Eibar, Elgoibar eta Durango



Institutu berriaren instalakuntz modernoaren itxura.

RAUL BOGAJO

izan dira beharrezko erreferentzi guneak noizbait unibertsitatera heldu nahi zuen edonorentzat, egoera honek berarekin ekarri dituden ondorioekin.

Ermuko ikasle kopurua, duen gaztedi kopurua kontutan harturik, benetan garrantzitsua izan da, eta da oraindik ere. Honekin batera ezin ahaztu daiteke herriko familien gehiengoa soldata bakarraz bizi dela eta ez edonolako soldataz, baizik eta lantegietako langileen soldataz kasu gehienetan.

15 urte baino gehiago izango dira institutuaren proiektua dantzatzan dabilela. Gure gelakideok ere irakaskuntz ertaina herrian bertan egingo genuela pentsarazi ziguten.

Hortaz konpreni daiteke zenbateko esfortzua suposatzen duen bi edo hiru seme-alaba duen famili batentzat hauen egunero-ko bidaiak ordaintzea, jadanik ikasteak berak suposatzen duen kostua ere hortxe bait dago.

Ongarain eraikitako institutuak egoera hau zeharo aldatuko du. Unibertsitate Laboralera zihoazen lehen eta bigarren mailako ikasleek bere lekua dute ikasturte honetatik aurrera herrian bertan, eta ez dute zertan Eibarre-

ra jaitsi beharrik izango. Noski, Eskola Armerixara joan nahi duenak edo eta beste edonon ikasteko asmoa duenak, lehen bezela orain ere aldegeteko eskubidea izango du. baina behintzat Ermuan geratzeko aukera hori ere eskeiniko zaio.

Ongaraiko Institutuak momentuz irakaskuntz ertaineko lehen eta bigarren mailakoentzat zabalik dago eta datozen bi ikasturteetan zehar hirugarren maila eta UBI gehituko zaizkie. Honetaz gain, etorkizunari begira irakaskuntz ertainaren erreformari leku egingo diote Ongaraiko instalakuntzek ikasketa aukerak aniztuz. Ikasketak, hori bai, A eremuan izango dira momentuz.

Esan beharrekoea da institutuak egitura modularra duela. Oraingoz, lehen eta bigarren mailako lau gela ditu bakoitzeko, eta ez da inolako arazorik egongo gela kopurua haunditzeko, orotara hamabi bait daude eta gehiago izan daitezkeelako. Ikasgela hauetaz gain laborategi bi dauzka, bata kimikarako eta bestea biologiarako, eta ez dira faltako liburutegia, ikusentzuteko eta ordenagailuen gelak edo gimnasioa.

Kirol ekipamenduari dagokionean pilotaleku estalia da dudarik gabe aipagarriena, kanpoko kirol instalakuntzekin

Ikasketak bakarrik A eremuan izango dira momentuz.

batera. Eta guzti honi batur egin behar zaizkio bai kokapena bai duen eraikuntza modernoa ere.

Egia da eraikuntz lanak arazoz josita egon direla, ordainketa suspentsioak direla medio urte oso batez atzeratu direlarik. Irakasleen etorrerak ere zeresanik eman du nahiz eta azkenik 17 irakasle egon, horietatik berderatzi instituturako espreski etorriak eta beste zortziak Eibarko Unibertsitate Laboralekoak izanik.

Arazoak arazo, gauza da Ermuko Institutua behingoz bukatu egin dela, eta benetan poza ematen du goizero ehundaka neska-mutil ikustea Ongaraitik gora ikastera abiatuz.

Iñaki Moreno

KARTONERU MODERNOAK

Orain arte zakarrentzi bakarria erabili dugun arren, hemen-dik aurrera, Europako hainbat herritan gertatzen den bezalaxe, zaborra banatzen hasi beharko dugu. Hasteko papera eta kartoia bananduko ditugu.

Denda eta eskoletara heltzea izango da lehenengo fase batetan helburu nagusia, beraiek bait dira paper eta kartoi gehien erabiltzen dutenak. Dagoeneko, herriko eskoletan egin izan da esperientzi txiki

bat erreziklapena dela eta. Denborapasako talde bati esker, umeek jakin izan dute erabilitako paperak duen erabilgarritasuna eta joko bat biltz, ari izan dira zakarra banatzen. Espero dezagun gurasoek ere jo-



Ume naturazale bat. SANTOS VEGA

las honetan parte hartzeko borondatea izatea, jolasten hasi eta ohitura bilakatu dadin.

Bea Narbaiza

DROGERIA - OPARIXAK SOLOZABAL

Ixa 50 urte zuekin

Cardenal Orbe plazan


17 00 52 telefonoa

ERMUA



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**



ARRAINDEGIA

eta

ITSASKIA

DOMINGUEZ

Eibarko Merkatu Plaza

Tfnoa: 11 80 38

Tlf. partikularra: 11 77 25

Ermuko Merkatu Plaza

Tfnoa: 17 03 38

Tlf. partikularra: 17 02 84